**I**nvestigación = **I**kerketa

**Funtsak modu birtualean eta zuzenean kontsultatzeko aukera. Artxiboko lana ikerketari ere lotuta dago. Horregatik, erabiltzaileek ikerketak egin eta agiriei eta informazioari buruzko beharrak ase behar dituzte. Geure zeregina, beraz, ikerketan lagundu eta zerbitzu eraginkorra ematea da.**

Acceso virtual y físico a los fondos. El trabajo del archivo es también investigación y los usuarios realizan sus investigaciones y resuelven necesidades de documentación e información. Nuestra labor es facilitar la investigación y ofrecer un servicio eficiente.

**C**onocimiento = Ja**K**intza

**Hitzaldiak, tailerrak, programak, prestakuntza-gela eta zentro birtuala eskaintzen ditugu. Edozein bide da egoki geure helburu nagusia lortzeko: zabalkundea.**

Conferencias, talleres, programas, aula formativa y espacio virtual. Todas las líneas de difusión son válidas para llegar a nuestro principal objetivo: la difusión.

Ícaro

**A**rchivo = **A**rtxiboa

**Kultur ekoizpenaren fruitu eta eragile da. Zeregin administratiboaz eta artxiboa sortu duen erakundeari ematen dion zerbitzuaz gain, alderdi kulturala ere badu. Icaro zentroak, hain zuzen, irteera naturalagoa, aktiboagoa eta zabalagoa ematen dio azken alderdi horri.**

Objeto y sujeto de producción cultural. Junto con la función administrativa y de servicio a la entidad que lo ha creado a tal fín, el aspecto cultural del archivo tiene en el Centro Icaro una salida natural, más activa y amplia.

**R**ed = Sa**R**ea

**Zentro birtual aurreratua da. Aurreko guztiari kohesioa ematen dio, hainbat arlo profesional bateratuz eta jakintza-ehuna sortzera bideratutako ikuspegiak uztartuz.**

Espacio virtual avanzado, que da cohesión a todo lo anterior, poniendo en contacto diferentes campos profesionales y aglutinando perspectivas para crear un tejido de conocimiento.

**O**rganizada = **O**ndo antolatua

**Lan eta zereginen orekan oinarritutako ordena du. Egitura horretan, bada, ekarpen guztiak kontuan hartzen dira eta lanak optimizatzen dira, ahaleginei ahalik eta etekin handiena atereaz.**

Orden dinámico en equilibrio de trabajos y funciones, una estructura donde tengan cabida todas las aportaciones, se optimicen los trabajos y se rentabilicen esfuerzos.

www.centroicaro.net

Ícaro

**HISTORIAREN EZAGUTZARAKO ZENTRO AURRERATUA**

CENTRO AVANZADO DE CONOCIMIENTO DE LA HISTORIA

ARCHIVO HISTÓRICO ECLESIÁSTICO BIZKAIA — AHEB BEHA — BIZKAIKO ELIZAREN HISTORI ARTXIBOA

planavanza2

GOBIERNO DE ESPAÑA — MINISTERIO DE INDUSTRIA, TURISMO Y COMERCIO

Larrauri 1 A. 5ª Planta
48160 Derio - Bizkaia
Tel. 944 062 490
E-mail: info@aheb-beha.org
www.aheb-beha.org

www.centroicaro.net

Ícaro

**HISTORIAREN EZAGUTZARAKO ZENTRO AURRERATUA**

CENTRO AVANZADO DE CONOCIMIENTO DE LA HISTORIA

## ICARO, historiaren ezagutzarako zentro aurreratua

Teknologia berrien eta Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboaren (BEHA) bidez, ICARO "historiaren ezagutzarako zentro aurreratua" dugu, eta zerbitzu aktibo ugari eta bulego birtualaz gain, agiri-funts zabalak, zuzenean zein interneten bidez, eskuratzeko aukera ematen du. Arlo profesionaletik edo irakaskuntza zein dibulgaziozko kontuengatik interesatuta dauden pertsonak edo taldeak ditu hartzaile.

ICARO zentroak ateak zabaltzen dizkio ondare historikoaren lehenengo iturri horri; Behe Erdi Arotik gaur egun arteko Bizkaiko gizartearen bizitza soziala, erlijiosoa eta kulturalari buruzko datuak eskaintzen dituzten idazkiez osatuta dago.

Zentroak agerian laga gura du zelan artxiboen funtzio nagusiak –bildu, gorde eta zabaldu– funtsezkoak diren gaur egungo ezagutzaren gizartea eraikitzeko, historiaren joan-etorriaren eta haren gorabeheren lekuko; gainera, administrazio-beharrak errazten ditu, ekintzak frogatze eta jendearen askatasunak eta eskubideak ziurtatze aldera.

Azken buruan, mendez mende pilatutako ezagutza, artxiboan gordetako agirietan jasotakoa, informazio erabilgarri bilakatzea, eta, batez ere, zuzenean edo birtualki, eskuratzeko modukoa. Eskaintza zientifiko, kultural eta olgeta bizikoa ematea, errealitate historiko, sozial eta kultural baten espiritua bizirik mantenduz, hain zuzen ere, Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboak gaur egungo gizartea sozializatzeko eta eraldatzeko tresna gisa zabaldu eta errebindikatu gura duena.

**ZEIN?** Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa (BEHA). BEHA arduratzen da sorreraz eta funtzionamenduaz, erabiltzaile-talde eta interesdun guztientzat, ikuspuntu profesionaletik zein didaktikotik eta zabalkundearen aldetik ere bai.

**ZER?** ICARO, historiaren ezagutzarako zentro aurreratua. Historia interpretatzeko zentroa, artxiboaren lanean oinarrituta eta berton zaintzen diren agiriek Behe Erdi Arotik jasotzen duten historian.

**NON?** Artxiboan berton eta/edo interneten bidez. Jarduerak BEHAren instalazioetan garatzen dira (erakusketa iraunkorra eta aldi baterako erakusketak, tailerrak, ikastaroak, berbaldiak, eta abar) eta Zentro Birtual Aurreratu batetik, web bitartez, ingurune interaktibo eta aldakor batetik.

**NOIZ?** Abendutik, web orriaren bidez. 2010eko udaberritik, zuzenean. 2009ko abendutik, Zentro Birtual Aurreratuaren bidez, informazioa eta jarduerak eskuratu ahalko dira, bai eta, besteak beste, joko interaktiboak, bulego birtuala, artxibo digitala... 2010eko apiriletik zuzeneko jarduerak hasiko dira, artxiboko langileek bideratuta.

**ZELAN?** Bere bultzadari esker, Ministerioaren diru-laguntzarekin batera. ICARO Zentroa BEHAren bultzadari esker sortu da, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak emandako diru-laguntzaz, Telekomunikazioen eta Informazioaren Gizartearen Ekintza Estrategikoaren barruan (*Avanza Contenidos* azpiprograma).

**¿QUIÉN?** El Archivo Histórico Eclesiástico de Bizkaia. AHEB es el encargado de la creación y funcionamiento, dirigido a todos los grupos de usuarios e interesados, tanto desde el punto profesional como didáctico y divulgativo.

**¿QUÉ?** Centro avanzado de conocimiento de la historia. Centro de interpretación basado en el trabajo del Archivo y la historia que contienen los documentos que se custodian en él, desde la época tardomedieval.

**¿DÓNDE?** En el propio Archivo y/o a través de internet. Las actividades se desarrollan en las instalaciones del AHEB (exposición permanente y temporales, talleres, cursos, charlas, etc. ) y desde un Espacio Virtual Avanzado, vía web, en un entorno interactivo y cambiante.

**¿CUÁNDO?** Por la web, desde diciembre. En presencia, desde primavera de 2010. Desde diciembre de 2009 a través del Espacio Virtual Avanzado se podrá acceder a información y actividades, juegos interactivos, oficina virtual, archivo digital, etc. A partir de abril de 2010 comenzarán las actividades presenciales guiadas por personal del Archivo.

**¿CÓMO?** Gracias al impulso propio, junto a una subvención ministerial El Centro Icaro nace gracias al impulso de AHEB junto a una subvención del Ministerio de Industria, Turismo y Comercio, dentro de la Acción Estratégica de Telecomunicaciones y Sociedad de la Información, Subprograma Avanza Contenidos.

## ICARO, centro avanzado de conocimiento de la historia

A través de las nuevas tecnologías y del trabajo del Archivo Histórico Eclesiástico de Bizkaia, el Centro ICARO se presenta como "un centro avanzado de conocimiento de la historia" que ofrece numerosos servicios activos, oficina virtual y acceso a amplios fondos documentales, presencialmente o a través de Internet, destinado a personas o grupos interesados desde el ámbito profesional o desde aspectos didácticos y divulgativos.

El Centro ICARO abre sus puertas a esta fuente primaria de conocimiento del legado histórico, con escritos que ofrecen datos sobre la vida social, religiosa y cultural de la sociedad de Bizkaia desde la Baja Edad Media hasta nuestros días.

Desde el Centro se quiere evidenciar cómo las principales funciones de los Archivos - recoger, preservar y difundir- son esenciales para construir la actual sociedad del conocimiento, sirviendo como testigo del paso de la historia y sus avatares, además de facilitar tareas administrativas para probar actos y asegurar libertades y derechos de las personas.

En definitiva, convertir en información útil y, sobre todo accesible física o virtualmente el conocimiento acumulado durante siglos en los documentos que se conservan en el Archivo. Mediante una oferta científica, cultural y de ocio activo que mantenga vivo el espíritu de una realidad histórica, social y cultural que el Archivo Histórico Eclesiástico de Bizkaia quiere difundir y reivindicar como socializadora y transformadora de la sociedad actual.